

Hamar gaztetik zortzik uste dute emakumeek gizonak baino ahalegin handiagoak egiten dituztela lana eta familia bateratzeko

Euskadiko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiek baino gehixeagok (% 59) uste dute seme-alabak izateak emakumezkoen karrera profesionala oztopatzen duela, baina bakarrik % 12k uste dute gizonzkoen karrera profesionala oztopatzen duela.


Horren harira, gazteen % 80k uste dute gaur egun emakumeek gizonak baino ahalegin handiagoak egiten dituztela familia eta lana bateratzeko.

Datu horiek [Familia EAEn](#) izeneko txostenean kaleratu zituen [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) urte hasieran. Datuok egiaztatzeko, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) 2013 urtearen bukaeran eginiko ikerketa baten emaitzak aztertu ditu. Ikerketa horretan Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko 1768 gazte elkarrizketatu zituen Behatokiak.

Euskadin 18 eta 34 urte bitarteko emakumeen % 29k seme-alabak dituzte; gizon gazteen kasuan seme-alabak dituztenak % 14 baino ez dira.

Seme-alabak dituzten gizon eta emakume gazteen lan egoera aztertuz gero, ikus dezakegu seme-alabak dituzten emakumeen % 48k, soilik, lan ordaindua dutela; aitzitik, seme-alabak dituzten gizon gazteen % 61 lanean daude.

Seme-alabadun gazte langileen lan-baldintzetan sakontzen badugu, azpimarra dezakegu ama gazteen % 40k lanaldi laburra edo partziala dutela, aita gazteen kasuan % 10ek, aldiz.



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2013

Gainera, lan egiten duten ama gazteen % 24k bere kualifikazio edo prestakuntza mailaren azpitik dauden lanak betetzen dituzte, aita gazteen kasuan % 13k.

Ama gazte langileen % 33k aldi baterako lana dute eta beste % 5ek ezta kontraturik ere; aitei dagokienez, % 23k dute aldi baterako lana eta % 1ek soilik egiten du lan kontraturik gabe.

Lana galtzeko arriskuari dagokionez, lana eta seme-alabak dituzten emakume gazteen % 24k urtebeteko epean lana gal dezaketela diote. Arrisku bera nabaritzen duten gizonzkoak % 14 dira.

Argi dago, beraz, emakume gazteek ahalegin handiagoak egiten dituztela lana eta familia baterateko: gizonzkoek baino neurri handiagoan uzten diote lanari, eta lan egiten dutenak gizonen baino neurri handiagoan murrizten dute beren lanaldia. Gainera, seme-alabak dituzten emakumeek seme-alabadun gizonen baino lan-baldintza kaskarragoak dituzte: neurri handiagoan dituzte aldi baterako kontratuak, kualifikazio gutxiagoko lanak edota beren formakuntza mailaren azpitik dauden lan gehiago betetzen dituzte eta lana galtzeko arrisku handiagoa jasan behar dute.



Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

